# AMONAREN SALTXITAK PATATA PUREAREKIN

written by Errezetak



**Nire amaginarrebak prestatzen dituen afarietatik hau izango da gehien atsen zaidana dudarik gabe. Ondoan jartzen duen etxeko patata-pure goxo horrekin, plazako harakinak prestatzen dituen izugarrizko saltxitxa horiekin….batzutan zoriontsu izateko oso gutxi behar da.**

4 Perts.

**Osagaiak:**

- 12 Saltxitxa
- 1/2 Edalontzi ardo zuria
- Ura
- 2 Erramu hosto
- Patata purea

Denbora: 30 minutu

**Prestaketa:**

**1.**Kazola batera saltxitxak, ardoa eta erramu hostoak gehitu. Ura gaineratu saltxitxak estali arte. Sutan jarri, eta bitsa kendu. Irakiten hasten denetik, 10 minutuz egosi, bitsa ateraz.



---

**2.**Denbora pasatzean, saltxitxak egosiak badaude atera. Plater alde batean patata pure eta aldamenean saltxitxak jarriz zerbitzatu.

